

A K T A

2015eko abenduaren 3an Udal Batzarrak buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoan, bi mila eta hamabosteko abenduaren hiruan, arratsaldeko zortzietan, **Jose Francisco Mendizabal Irigoien** jauna Mahaiburu delarik, korporakide hauek biltzen dira: **Gorka Unanue Zabala, Montserrat Atxega Etxebeste, M^a Iciar Elorza Nieto** eta **Karmel Bedita Mendizabal Irigoien**, EAJ-PNV Udal taldeko zinegotziak; **Mikel Arregi Urrutia, Amagoia Andres Olaizola, Aitor Zuzuarregi Arregi** eta **Iñaki Uranga Beristain**, EH BILDU Udal taldeko zinegotziak. **Juan Carlos Garcia de la Flor** eta **Margarita Eizagirre Rodriguez** korporakideek bere ezin etorria adierazi dute.

Idazkari lanetan, Korporazioan jarduten duena, **Ander Cestona Unanue** jauna.

1.- 2.015EKO URRIAREN 29EAN BURUTUTAKO OHIKO ETA EZOHIKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BALITZ.- Ez da aldaketarako inongo proposamenik aurkezten, beraz, 2.015eko urriaren 29an buruturiko saioen aktak bere horretan onartu dira.

2.- 2015EKO UDAL AURREKONTUAN 2. KREDITU ALDAKETA ONARTZEKO PROPOSAMENA. Alkateak adierazi du 2015eko aurrekontuaren 2.kreditu aldaketa ogasun batzordean landu dela eta bere onarpena proposatzen dela.

Gehitzen diren partidak 283.046,50 eta gutxitzen direnak 283.046,50 eta aurrekontuaren osoko zenbateko berdin mantentzen da.

Ondoren Aitor Zuzuarregik adierazi du, proposaturiko aurrekontu aldaketa azterturik bere taldeak ontzat ematen duela.

Ondoren Kontuhartzaitzaren komunikazioaren berri ematen du. Honela dio:

-”2014ko azaroaren 18ko Diputatuen Kontseiluaren Akordioan, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorrean finantza tutoretzaren eskumena garatuaz 2015ko ekitaldirako aurrekontuen jarraibidea onartzen da.

1. erregela betetzen ez dituzten entitateek, planaren ordeztu, kontu-hartzaileak sinatutako komunikazio bat aurkeztu diezaioketela Udalbatzarrari esaten da.

Kontuan izanik 2015eko abenduaren 31n, Zestoako Udalaren zor biziaren guztira, 2014an likidatutako sarrera arruntaren % 15,93 izango dela aurreikusten dela. Kalkulua egiteko, 2014ko abenduaren 31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean zirenen eragiketa guztiengatik, abaletatik eratorritako arriskua barne; emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2015erako aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2015erako aurreikusitako amortizazioak.

Bestalde, aipatu behar da, azken urteetan Zestoako Udalaren zor biziak beheranzko joera nabarmena izan duela, norabide berean jarraituta urte gutxi barru Udalaren zorra zero izatera iritsiko delarik.

Gehitu behar da, 2015eko aurrekontuaren 2. aldaketa honetan egonkortasun araua ez betetzearen arrazoia, ekintza puntualak direla. Ekintza hauek, 2015ean bakarrik izango dute eragina eta ez dute inolako kargarik suposatuko etorkizuneko ekitaldietan.

Azkenik egiazta daiteke Zestoako udalaren finantza iraunkortasuna bermatua dagoela, egun ditugun datuak kontutan hartuta”-.

Azalpen hauen ondoren, Udal Batzarrak, Korporazioa legez osatzen duten hamaika korporakidetatik bertaratutako bederatzi korporakideren aldeko botoekin, honako erabaki hau hartzen du:

2015ko aurrekontuaren 2. kreditu aldaketa, bere osotasunean onartzea, jarraian zehazten den laburpenaren arabera:

Gastuak:

• Hasierako gastuak.....	5.186.130,57 euro
• Gehikuntzak.....	283.046,50 euro
• Gutxikuntzak.....	<u>283.046,50 euro</u>
Behin betiko gastuak.....	5.186.130,57 euro

3.- AGOTE EREMUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BIGARREN ALDAKETA PUNTUALARI BIGARREN HASIERAKO ONESPENA EMATEKO PROPOSAMENA.- Jose Francisco Mendizabal alkate jaunak adierazi du, arau subsidiarioen aldaketa onartu ahal izateko dokumentua ez dela udalean aurkeztu azken aldaketekin eta ondorioz hurrengo batzar batean aztertuko dela gaia.

4.- ZESTOAKO UDALERRIKO DENBORA MUGATUKO APARKALEKUAK ARAUTZEKO PROPOSAMENA.- Alkateak jakitera eman du herrigunean aparkalekua mugatzeko paperezko diskoekin saiakera bat egin izan dela, baina ez duela oso ondo funtzionatu. Ondorioz, OTA moduko doako sistema bat ezartzea proposatzen da. Goizeko 9:00etatik 13:30etara eta arratsaldean 16:30etatik 20:00etara. Gai hau batzorde merkataritza batzordean aztertu izan da.

Ondoren Mikel Arregik hartu du hitza. Bere sutez orain arteko sistema zaharkitua gelditu da eta merkatarien eskaera bat zerbait jartzea. Egokia dela dio bere taldearen ustez, eta gehitu du espero duela kudeaketarako azpikontratarik ez erabiltzea.

Alkateak erantzun dio, kudeaketa udaltzaingoak egingo duela.

Udal Batzarrak, saiora bertaratutako bederatzi korporakideren aho bateko adostasunarekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

LEHENA.- Ogasun Batzorde Informatiboak Zestoako Udalerriko Denbora Mugatuko Aparkalekuak Arautzeko proposamena akordio bezala onartzea, eranskinean jasotzen den moduan, 2016. urtean indarrean sar daitezen.

BIGARRENA.- Aurreko puntuan azaldu diren akordio hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan jendurrean jartzea 30 lanegunetan zehar, sor daitezkeen zuzenketa edo erreklamazioak egin ahal izateko.

HIRUGARRENA.- Hartutako erabakiak eta Ordenantza aldaketak, zein bere eranskinak, behin betikoak izango dira beste akordio baten beharrik gabe, jendurreko legezko epea iragan ondoren inolako zuzenketa edo erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz.

ERANSKINA

ZESTOAKO UDALERRIKO DENBORA MUGATUKO APARKALEKUEN ARAUTZEA

I. KAPITULUA

1. artikulua.

Ordenantza honen xedea hauxe da: Denbora mugatu batez udalerriko kaleetan aparkatzeko aukera dagoen eremuetan ibilgailuen estazionamendua antolatzeko zerbitzu publikoa arautzea.

2. artikulua.

Kale desberdinetan aparkatzeko denbora-muga duten eremuetarako ezarriko diren ordutegiak honakoak izango dira:

Astelehenetik ostiralera:

9:00etatik 13:30etara

16:30etatik 20:00etara

Larunbatak:

9:00etatik 13:00etara

Ordutegi hau Alkatetzaren dekretuaren bidez aldatu ahal izango da.

3. artikulua.

Eremu horietan, gehinez, 90 minutu aparkatu ahal izango da eta ez da ezer ordainduko.

Bertan aparkatu ahal izateko, 2 ordu igaroko dira.

4. artikulua.

Ordenantza honen eraginpean dagoen eremuan aparkatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Tiketa ibilgailuaren barrualdean leku agerian erakutsiko da, kanpoaldetik ikusteko moduan.
2. Tiketean erraz ikusiko dira bi datu hauek: tiketak duen denbora-muga eta ibilgailuaren matrikula.
3. Tiketok hartarako jarriko den parkimetroan jasoko dira.

5. artikulua.

Alkate-udalburuak, Zerbitzuetako Departamenduak proposatuta, aldi baterako geldiarazi ahal izango du Ordenantza hau aplikatzea, behar bezala arrazoituta, trafikoan eta aparkalekuetan edozein eratan eragiten duten kausak egonez gero.

6. artikulua.

Ordenantza bete egingo dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarriko da eta behar diren giza baliabideak nahiz baliabide materialak izango ditu zerbitzu horrek.

7. artikulua.

1.- Ordenantza honetan ezarri diren artikuluetatik edo horren garapenean, Alkatetza-udalburuak eman ditzakeen gainerako xedapenetatik edozein hausten bada, trafiko eta zirkulazioari buruzko antolamendurako arauen arau-haustetzat joko dira eta, horrelakoetan, legez ezarrita dagoen prozedura betez zehapenak ezarriko dira.

2.- Ondorengo hauek izango dira arau-hausteak:

- a) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gutxiagoan, gainditzea.
- b) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gehiagoan, gainditzea.
- c) Balio ez duen tiketa erabiltzea – matrikula okerra-.
- d) Tiketa ez jartzea.

8. artikulua.

Salaketa jaso den egunean bertan baliogabetu ahala izango da, aparkalekuko makinan bertan edo udal bulegoetan. Arau-haustearen arabera, hauek dira baliogabetzearen zenbatekoak:

a) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gutxiagoan, gainditzea. (6,00 €)

b) Tiketean ager dien aparkatzeko denbora, ordubete baino gehiagoan, gainditzea (10,00 €).

c) Balio ez duen tiketa erabiltzea – matrikula okerra-. (10,00 €)

d) Tiketa ez jartzea (10,00 €).

9. artikulua

1. Isunak, tiketa ateratzeko makinan edo udaletxean zerga-bilketarako bulegoetan ordainduko dira, isunak indarrean dauden egun beretik hasi eta 15 egunen buruan.

2. Aurreko atalean azaldu den bezala, 15 egunen buruan ordaintzen ez bada, premiamendu bidez ordainaraziko da. Bide hau betearazlea da.

5.- UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN KONTU BATZORDE BEREZIAN ETA KONTRATAZIO MAHAIAN JARDUTEKO UDALEKO ORDEZKARIEN ETA ORDEZKOEN IZENDAPENA.

- Jose Francisco Mendizabal Irigoien. Ordezkoa: Montserrat Atxega Etxebeste
 - Gorka Unanue Zabala. Ordezkoa: Karmelo Mendizabal Irigoien
 - Mikel Arregi Urrutia. Ordezkoa: Margarita Eizagirre Rodriguez.
- Aho batez onartu dira.

6.- GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOKO BATZAR NAGUSIA OSATZEKO ORDEZKOA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Jose Francisco Mendizabal Irigoien
Aho batez onartu dira.

7.- UDAL ARKITEKTO AHOLULARIA DEN GAIZKA PEROSTERENA JAUNARI BERE ERRENTAMENDU KONTRATUA URTEBETEZ LUZATZEKO EMANIKO ALKATETZA EBAZPENAREN BERRI EMATEA.

Alkateak jakitera eman du, 2014ko azaroaren 30an publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez arkitekto aholkulari moduan Gaizka Perosterena kontratatu zela urtebeterako. Epea amaitu da eta alkatetza ebazpen bidez, urtebete luzatzea erabaki da kontratu hau.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

Mikel Arregik bi kontu aipatu ditu:

1- Jakinik udal gobernu taldea hondakinen bilketa sistema berraztertzen ari dela. Aldaketa bat egiteko asmoa balego, zein prozedura jarraituko den galdegin du.

Alkateak erantzun dio oraindik azterketa egiten ari direla, zenbakiak konplexuak direla eta horretan ari direla. Baina aldaketaren bat proposatuko balitz, hondakinen mahaia deituko litzatekeela eta baita ingurumen batzordea ere aztertuko litzatekeela. Azkenik erabakia Udal Batzarrean hartuko litzateke. Gauzak garbi egitea nahi da eta elementu guztiak mahai gainean jarriko direla dio.

Mikelek erantzun du, gustatuko litzaiokeela udal gobernuak kontuan izatea eragile desberdinen iritzia. Bere taldearen iritzia egungo sistema hobetzearena dela dio. Inguruko herriekin alderatuta emaitzarik hoberenak Zestoak dituela kontuan hartuta. Aurreko legegintzaldian hondakinen gaia adostutakoa izan zen eta hori oso positiboa dela.

2.- Udal Batzarraren deialdiri buruz, hilaren azken ostegunetan egiteko erabakia dago. Erabaki hau ahal den neurrian errespetatzea eskatzen du, era horretan zinegotziek egun hori erreserbatuko lukete.

Alkateak erantzun du, pasa den astean astebete atzeratzearen arrazoï nagusia, Agoteko Arau Subsidiarioen aldaketarako dokumentua atzeratzearena izan dela.

Mikelek adierazi du, Udal Batzarra ez dela tramite bat bakarrik, eta kanpoko arrazoiengatik plenoa atzeratzea neurri batean debaluatzea izan daitekeela.

Alkateak erantzun du, beste kasu batzuetan ere atzeratu izan dela eta ez zaiola garrantzirik eman. Dena den arrazoia duela Mikelek eta Udal Batzarra herriko parlamentua dela eta errespetu hori behar duela.

Gorkak gehitu du, plenotik gau hau pasatzeko ahalegina arauen aldaketako prozesuan ahal den denborarik gutxien galtzeagatik egin dela.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa arratsaldeko zortziak eta erdiak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

O. I.
ALKATEAK,